

Askatasuna euskara defendatzeko

Euskaldunon Egunkaria, 1995-01-17: 2.

Hizkuntza ez da Aberri osoa. Hizkuntzaz gain badu herri batek lurra, badu etniaren, tradizioaren eta ohituren lotura historian zehar berezia datorkiona. Herri baten sortzezko hizkuntza ere bada aberria, noski, eta esan genezake orokorrean beste oinarrizko faktoreen sintesia bat dela; ziurrena, hain zuzen. Baina aspalditik datorren gaitza, agintean dauden hizkuntzak dira legez indar hau beretzako eskusibaz gorde nahi dutenak; baztertuak utzi dituztenen kaltetan, noski. Eta ez du Afrikan bakarrik gertatzen. Egun hauetan euskararen erabilera Iruñean debekatu nahi izan da. Bertoko Linguae Navarrorum irrati bidetik bota egin nahi izan dute, gaztelera hutsa darabilten beste 19 irratiaren kaltetan, omen!, ari delako euskaldun lotsagabea. Ohitua dago gaztelera agintzen gure etxean. Baina oraingo honetan, guhauok zerbait ikasi dugula eta aurreratu ere egin dugula erakutsi dugu euskaldunok. Gure lurrean gureak diren erakundearen babesa jarri da martxan: Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak, biek batera, Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari protesta formala egitea erabaki dute. Jean Haritxelar behenafarra, eta Gregorio Monreal nafarra, euskal erakunde nagusienetako buruak dira, zilegitasun osoz, indarrean agertu direnak. Iruñean bereziki. Ikasbide bat. Askatasunaren bila borrokan etengabe arituz gain, dugunaren zati guztiak defendatu egin behar ditugu eta ez bakoitzak beretik, elkarrekin baizik. Halere izango dugu eta nahiko lan.